

2-Segmentazioa:

Gure produktua, nagusiki, ibilgailu elektriko edo hibridoen jabe diren 40 eta 65 urte arteko erabiltzaileentzat pentsatua dago. Gehienbat errenta altuko profilak dira, premium markako autoak (Tesla edo Mercedes, adibidez) dituztenak eta segurtasuna lehenesten dutenak. Bezero hauek lasaitasuna bilatzen dute; badakite zer arrisku dituzten bateriek eta prest daude segurtasun-gehigarri batean inbertitzeko, euren burua eta familia babestuta sentitzeko.

Beste alde batetik **suhiltzaileak**. Auto elektrikoaren suteak itzaltzea lan konplexua eta arriskutsua denez, gure sistemak esku-hartze horiek erraztu eta seguruago bihurtzen ditu, larrialdi-zerbitzuen lana erabat eraldatuz.



Merkatuaren hedapena eta kokapena: Geografiari begira, gure aukerarik handiena auto elektrikoaren kultura oso zabaldua duten herrialdeetan dago. Baina, batez ere, **klima beroko eskualdeetan jarri dugu fokua** (Europako hegoaldea, AEBko estatu beroak edo Hego Amerika). Izan ere, tenperatura altuek baterien gainberotzea bizkortzen dute, eta hor gure produktuak berebiziko garrantzia hartzen du.